

NON ARRAIO DAGO LOREREN TXITA?

Testua eta irudiak: PAT HUTCHINS

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 25,4 x 20,3 cm. 32 or. 14 €.

Non arralo dago Loreren txita? (euskaraz)
ISBN 978-84-7681-891-6. Kalandraka-Pamiela.

¿Dónde está el pollito de Rosalía? (gaztelaniaz)
ISBN 978-84-8464-939-7. Libros para soñar.

Onde está o polliño de Rosalía? (galegoz)
ISBN 978-84-8464-940-3. Tras os montes.

On s'ha ficat ell pollet de l'Angelina? (katalanez)
ISBN 978-84-846 4-941-0. Llibres per a somniar.

Aupa! Lore oiloak arrautza bat txitatu du.

Eta, azkenean, arrautza arrakalatzan hasi, eta...

Baina, ai ene!

Non ote dago txitatxoa?

“Non arrai dago Loreren txita?” “Loreren ibilaldia” izenekoaren bigarren parte da. Klasiko harekin eman zuen Pat Hutchinsek bere burua ezagutzera 1968an, eta orduan haren abangoardiazko estetikatik nabarmendua izan zen: marra bakunak, tonu garrantzetako koloreak eta ikusizko eduki indartsua. Obra haren eragina oraindik bizirik dagoela, ipuin berri honek aurrekoaren ezaugarri narratibo eta plastikoei eusten die: esaldi labur kateatuen ondoan, kontakizuna osatzen duten irudi deskriptiboak, bi irakurketa maila paralelo proposatuz.

Beraz, alde batetik, Pat Hutchinsek txitaren bilaketaren partaide bihurtzen gaitu; beste alde batetik, txita baldar arretagabearen gorabehera arriskutsuen lekuko gara: baserrian batera eta bestera, amak etengabe bilatzen duen bitartean.

Baserri giroko abentura jostagarriak eta umorea gainezka aurreko liburuari keinu ugari egiten dizkion album berri honetan.



- **Galak:** Lore oiloa bere txitaren bila dabil; baserriko bizimodua.
- **Gomendatutako adina:** aurreirakurleak eta lehen irakurleak.
- **Alderdi azpimarragarriak:** “Loreren ibilaldia” albumaren jarraipena; “Gabon, hontza!” (Kalandraka-Pamiela) albumaren egile berarena; abereak, baserria; koloreak; orientazioa espazioan; umorea; irakurketa anitzak.

Pat Hutchins

(Ingalaterra, 1942)

Zazpi anai-arrebetatik seigarrena, Pat Hutchins zelaiez eta naturaz inguratuta hazi zen, gerora bere obran islatuko zuen giroa. Oso gaztetatik artista izan nahi izan zuen, inguruko zahar bikote batek marrazki bakoitzeko txokolate-barra bat oparitzen ziolarik. Herriko arte-eskola batean ikasi zuen hiru urtez, eta gero Leeds-eko Arte Akademiara joan zen ilustrazio espezializazioa egitera. Hasiera batean, bere obra Londres inguruko zirkuito artistikora mugatu zen, baina ezkondukoan New Yorken emandako denboraldi batez argitaldari batzuei bere obra arrakasta handiz erakusteko aukera izan zuen. Liburu hau (*Rosie's Walk* titulurekin) izan zen haurrentzat argitaratu zuen lehen albuma, Amerikako Liburuzainen Elkarteak (ALA) Liburu Nabarmendua izendatua 1986an. Geroztik, eleberrri batzuk idatzi eta ilustraturiko liburu gehiago argitaratu zituen. Kate Greenaway Domina prestigiotsua eman zioten 1974an. Gaur egun Londresen bizi da.

